

**Bilera mota:** Udal Osoko Bilkura Arrunta.

**Data:** 2014-03-27 (osteguna)

**Ordua:** arratsaldeko 19:00tan

**Lekua:** Udaletxeko Areto Nagusia

**Erreferentzia:** O-14-01

---

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko martxoaren 24a  
Idazkari-kontuhartzailea

---

#### **EGUNEKO GAI ZERRENDA**

- 1.-Azkeneko Udal Osoko Bilkuraren akta onarpena zuzen irizten bada. -E-14-01 (2014-2-17).
- 2.-Azkeneko Udal Osoko Bilkura Arruntatik aurrera Alkatetzak eman dituen Dekretuen berri ematea.
- 3.- 2014ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra hasierako izaeraz onartzeko proposamena.
- 4.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Ezkio-Itsasoko Udalak informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaz Hitzarmena.
- 5.- Motordun Ibilgailuen Zerga bide exekutiboan biltzeko ahalmena Udalaren esku utzi dezala eskaera onartzea.
- 6.- Erregu eta galderak.

## **2014KO MARTXOAREN 27KO UDAL OSOKO BILKURA ARRUNTA**

Ezkio-Itsason, bi mila hamalauko martxoaren hogeitazazpian.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zuzenetik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK)
- Garikoitz Ayesta Etxaniz (EIK)
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).
- Ruth Idiakez Alberdi (EIK)

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Gotzon Goikoetxea Cestona.

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

**LEHENENGO PUNTUA. Azkeneko Udal Osoko Bilkuraren akta onarpena zuzen irizten bada. E-14-01 (2014-2-17).**

Ikusirik Udalkide guztiei bidali zaiela aipatuko diren Udal Osoko Bilkurei dagozkien akta-minutak, Udal Osoko Bilkurak, aho batez

**ERABAKI DU:**

**BAKARRA:**

Aurkeztu den eran onartzea honako akta minutak: -E-14-01 (2014-2-17).

**BIGARREN PUNTUA. Azkeneko Udal Osoko Bilkura Ez-ohizkotik aurrera Alkatetzak eman dituen Dekretuen berri ematea. (R-14-026/R-14-059).**

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamenduko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkuratik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-14-026/R-14-059 (zerrenda osoa aurkezten da).

**HIRUGARREN PUNTUA. 2014ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra hasierako izaeraz onartzeko proposamena.**

Ikusirik idazkari-kontuhartzaileak aurkeztu duen 2014ko ekitaldiko Udal Aurrekontuaren proiektua (barne 2014ko plantila organikoa eta lanpostu zerrenda); espedientearen laburpena honako hau da:



2	Zerbitzu eta Ondasun Arrunten erosketa	268.600,00
3	Finantz pasiboen int.	0,00
4	Transferentzia arruntak	121.196,34
<b>ERAGIKETA ARRUNTAK</b>		<b>669.836,61</b>

b) KAPITAL ERAGIKETAK

6	Inbertsio Errealak	232.693,02
7	Kapital Transferentziak	3.500,00
9	Finantza pasiboak	0,00
<b>KAPITAL ERAGIKETAK</b>		<b>236.193,02</b>

**GASTUAK GUZTIRA 906.029,63 euro.**

Alkate jaunak hartzen du hitza esanez partida txiki bat (19.000 €) ireki dela herri-eskola berriaren proiektuarentzat. Dena den, gaineratzen du proiektu honi aurrera eramateko, behin aurrekontu hauek onartuta aurrekontu aldaketa bat egingo dela, diruzaintza gerakinetik behar den kopurua jartzeko herri eskolaren lanak finantzatzeko. Gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

**ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA :**

2014 urteko ekitaldirako Udal Aurrekontu-proiektua hasierako izaeraz onartzea.

**BIGARRENA:**

Espedientea arauzko eran jendaurreko erakustaldian jartzea. Erakustaldi horretan erreklamazio edo alegaziorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe behin betiko onartutzat joko da. Azken hau jendaurreko erakustaldian ohartaraziko da.

**HIRUGARRENA:**

2014 ekitaldirako udal langileen plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea, eta hauek ere arauzko eran jendaurreko erakustaldian jartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Ezkio-Itsasoko Udalak informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren Hitzarmena.**

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalan (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari *dela*:

*"1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestora barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu*

*zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga*

*Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babesak eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.*

.....

*5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik behar. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikulua 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko."*

*Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:*

*"1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izatera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:*

.....

*b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.*

.....

*d) Beste edozein herri administrazioarekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.*

.....

*j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.*

.....



*l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.*

*m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.*

*..... .”*

Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak, informazioa emateko lankidetzan hitzarmen ereduak, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, Ezkio-Itsasoko Udaleko Udal Batzarrak, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau

## **ERABAKI DU**

**LEHENA:** Informazioa emateko lankidetzan hitzarmena sinatzea, 2014ko otsailaren 24an emandako 148/2014 Foru Agindu bidez onartutako ereduari jarraiki, bere A1, A-2, A-3, A-4, D-1, D-2, D-3 eta D-4 eranskinekin batera.

**BIGARRENA:** Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Ezkio-Itsasoko Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

**HIRUGARRENA:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-lehendakariak sinatuta.

**BOSTGARREN PUNTUA.** Motordun Ibilgailuen Zerga bide exekutiboan biltzeko ahalmena Udalaren esku utzi dezala eskaera onartzea.

Ezkio-Itsasoko Udalak Motordun Ibilgailuen gaineko Zergaren dirubilketa exekutiboaren lanak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskuordetu zizkion 2004ko azaroaren 11ean hartutako erabakiaren bidez.

Udalaren interesa da aipatu zergaren dirubilketa exekutiboaren eskuordetza bertan behera uztea, udala bera izango delarik dirubilketa exekutiboaren kudeaketa aurrera eramango duena egokien deritzon sistemaren bidez.

Aurreko guztia kontutan hartuta, Udalbatzak, bertaratutako 7 zinegotzien aldeko botoarekin, honakoa hartzen du

## **ERABAKIA**

**LEHENENGOA.-** Ezkio-Itsasoko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin duen zuzenbide publikoko sarreren bilketa exekutiboa arautzen duen hitzarmenaren barnean, Motordun Ibilgailuen gaineko Zergaren dirubilketa exekutiboaren zatia salatzea, udala bera izango delarik dirubilketa exekutiboaren kudeaketa aurrera eramango duena egokien deritzon sistemaren bidez.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Idazkaritza Tenikoari jakinaraztea, ziurtagiri bidez, dagozkion ondorioetarako.

**HIRUGARRENA.-** Aipatu Hitzarmenaren zatiaren salaketak, erabaki honen dataren egunetik hasita kontutan izatea.

**LAUGARRENA.-** Alkate-lehendakariari ahalmena ematea behar diren dokumentuak Ezkio-Itsasoko Udalaren izenean sina ditzan.

## **SEIGARREN PUNTUA. Erregu eta galderak.**

Urgentziazko edo presazko bidetik, eta Udalbatzako gehiengo absolutoak horrela erabakita, Udalbiltza Erakundearen mozioa aurkezten da, 2014ko Aberri Eguna dela eta.

“2014ko Aberri Egunerako Udalbiltzaren osoko bilkuretarako mozio proposamena

“Euskal Herritarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu”

Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsialetik eratorzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok gure borondatearen gaineratik, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herriko 1998. urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen.

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo “gure esku dago” bezala, Euskal Herrian

sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak edo itxaropentsuak izatera bultzatzen gaituen Independentziari buruzko Etxarriko herri kontsultak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herritarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, Ezkio-Itsasoko udalak Aberri Egunerako ohiko osoko bilkura honetan, hurrengo adierazi nahi du:

1.- Euskal Herritarrak garela adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan Euskal ikurrak jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Zer garen gaur, iragana ezagutu gabe oso zaila delakoan, aitzineko zein garaikidea den oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala ere, iragana baino gehiago, oraina eta -batez ere- etorkizunari erreparatu nahi dugunez gero, kultur, hizkuntz eta identitate aldetik anitz eta aberatsa sortzen ari den Euskal Herri berri honi so egiten diogu. Horregatik, atxikimendu librean oinarriturik, Herritartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatu, eta ekimen bateratua, ofiziala eta eraginkorra sortzeko konpromisoa adierazi nahi dugu.

4.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babes adierazi nahi diogu. Erabakitzeko eskubidearen ariketa demokratiko praktikotzat jotzen dugu eta zentzu honetan bere zilegitasuna aitortu nahi dugu.

5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, "Gure esku dago" herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, "Gure esku dago" herri dinamikari erabateko babes adierazi nahi diogu.

*Euskal Herrian 2014ko martxoaren 27an*

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez onartzen da.

Beterik deialdiaren helburua, 19:30ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko martxoaren 27a

O.E.  
ALKATEA

IDAZKARIA